

# KIROLAREN KUDEAKETA

## Enpresa y Economía

Eu | Es

Tipo Master Propioa (MP)

Kreditoak 60

## OINARRIZKO INFORMAZIOA

■ Tokia: Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gipuzkoa)

### Egutegia:

2020 Urritik 2022ko otsailera

■ Dozentzia mota: Presentziala

■ Prezioa : 3.600 €

### KONTAKTUA

■ master.gestiondeldeporte@ehu.eus

45

## AURKEZPENA

Titulu hau berezkomaster bat da. Berezko master eta graduondokoak unibertsitateak berak antolatzen dituen ikasketa espezializatuak dira, malgutasunez egokitzen direnak gizartearen eskaerara. Era berean, oso lagungarriak dira karrera profesionala bideratzeko nahiz karrera horri beste norabide bat emateko. Kirolaren sektorea ekonomia eta enplegu hazkunde aurreikuspen handienetakoa duen alor profesional bat da. Faktore askoren eraginaren ondorioz, kirol kudeaketan espezializatutako profesional gero eta gehiago behar dira, berebiziko garrantzia duen jakintza adarra delako kirol industriaren erungo eta etorkizuneko errealitateak eraginkortasunez kudeatzeko orduan.

Ikasleek eskuratuko dituzten gaitasunak lanmerkatuak eskatzen dituenak dira, kirolaren kudeaketan erantzukizun postuak arrakastaz betetzeko. Horretarako, sektorean eta haren enplegarritasun nitxo nagusietan adituak diren irakasleen laguntza izango dugu: enpresa kudeatzaileak, administraziopublikoetako arduradunak, lehenmailako kirol taldeen kudeatzaileak, ekitaldi antolatzaileak...

Den-dena kirol antolakuntzen kudeaketan diziplinarteko prestakuntza osoa bermatzeko.

## ZERGATIK AUKERATU TITULU HAU

+Arlo honetakomaster bakarra da Euskal Herriko eta inguruetako prestakuntza eskaintzan.

+Oinarri bikoitza: akademikoa (Ekonomia eta Enpresa Fakultatea, eta Hezkuntzaeta Kirol Fakultatea) eta profesionala (Emtesport, kirol kudeaketan liderra den euskal enpresa).

+Kirol kudeaketarako prestakuntza erakargarri eta beharrezkoa.

+Berrikuntzaneta malgutasunean oinarritutako ikasketaplana, eta lehen mailako kanpoko profesionalak

## SARTZEKO PROFILAA

Kirol sektoreko profesional graduatuak, kirol kudeaketaren arloko ezagutzak eta gaitasunak behar dituztenak beren lana garatuedo hobetzeko.

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako graduatuak eta Gorputz Hezkuntza eta Kiroleko graduatuak.

Profil horiez gainera, kontuan izango dira ere beste era batekoak.

## IRTEERAPROFESIONALAK

**Kirolari lotutako enpresen, klubuen, elkarteen eta abarren zuzendaritza, administrazioa, kudeaketa eta antolakuntza.**

## MODULU EGITURA

Masterraren 60 kredituak zatika edo moduluka (E1,E2,E3) egin daitezke Aditu (E) tituluak lortuz eta Master Amaierako Lana (TFM) eginez:

(E1) Kirol Erakundeen Kudeaketan Aditu  
19 kreditu / 1.140€

(E2) Kirol Erakundeen Kudeaketan Aditu,  
Zuzendaritza eta Kudeaketa eginkizunetan  
16 kreditu / 960€

(E3) Kirol Erakundeen Kudeaketan Aditu,  
Berrikuntza, Teknologia Berrien eta Ekitaldi Handien eremuan  
17 kreditu / 1.020€

Master= E1+E2+E3+TFM:  
60 kred / 3.600€